



AGINDUA, HEZKUNTZA SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO, HONAKO HAU ARAUTZEKO: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN HEZKUNTZA-ARLOAN ESKUMENA DUEN SAILAREN MENDEKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO ZUZENDARIEN ETA ZUZENDARITZA-TALDEEN PRESTAKUNTZA, EBALUAZIOA ETA AINTZATESPENA, ETA ZUZENDARITZA-LANETARAKO SARBIDEA.

Ikastetxeetako zuzendaria aukeratzeko, eta pertsona bakarreko beste gobernu-organoak izendatzeko eta kargua uzteko prozedura arautzen duen Otsailaren 3ko 22/2009 Dekretua izan da ikastetxe horietako zuzendaritza-taldeak hautatzeko, izendatzeko eta kargugabetzeko prozedura arautzeko araua, promulgatu zenetik, *Euskal Eskola Publikoaren Legearen bigarren aldaketa egiten duen ekainaren 13ko 3/2008 Legea* xedatutakoa betez.

22/2009 Dekretua argitaratu zenetik gaur arte, Hezkuntza sailburuaren aginduz, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko sei merezimendu-lehiaketarako deialdia egin da. Agindu horiek zehatzago arautu dituzte izangaiek bete beharreko baldintzak, bai eta hautaketa-prozesua ere (egutegia eta prozedura), eta parte hartzen duten ikastetxeak zehaztu dituzte agindu bakoitzean.

XXI. mendeko eskola-zuzendaritzak lidergo-gaitasunak eta -estiloak eskatzen ditu, hezkuntza-testuinguru eta -erronka berriei erantzuteko estrategia berriak bultzatzeko. Testuinguru horretan, erregulazio berriak behar dira, hezkuntza-lidergoko rol berriak sustatu ahal izateko, euskal hezkuntza-sistemak dituen erronkei aurre egiteko. Beharrezkoa da zuzendaritza-talde egonkorrak proiektu komunitario eta kolektibo bateko lider bihurtzea, ikaskuntzen kalitatea eta etengabeko hobekuntza sustatzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, xedapen arauemaile baten proiektua egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da, administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasotzeko.

Alderdi hauek bildu behar ditu kontsultak:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Ekimena onartzeko premia eta aukera.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egon daitezkeen konponbide arautzaileak eta ez-arautzaileak.

Hori dela eta, xedapen orokorra egin aurreko kontsultaren izapidea bete nahi da, arauak eragindako herritarrek eta gainerako erakundeek parte hartzeko eta planteatzen den aruari ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.





Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Etorbizuneko araudi horren eraginpean egon daitezkeen erakunde publiko, pertsona fisiko eta organizazio, entitate edo elkarte guztiei irekitzen zaie.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratuko da.
- Hamar egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta entitateek egokitzat jotzen dituzten iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Beraz, kontsulta publikoaren izapide hori da une honetan aurreikusitako lege-eskemari jarraituz egiten dena. Gainera, arau-proiektua egin aurretik egingo da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasiera-fasearen barruan.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak eskuordetutako eskumenen arabera, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.- Xedapen orokor baten proiektuari buruz kontsulta publikoaren tramitea egitea, proiektua gauzatu baino lehen. Xedapen horren bidez arautuko da Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendarien eta zuzendaritza-taldeek prestakuntza, ebaluazioa eta aintzatespena, eta zuzendaritza-lanetarako sarbidea.

Bigarrena.- Arauak eragindako herritarrek eta erakundeek, hala nahi badute, hamar egun balioduneko epea izango dute agindu honetan planteatutako alderdiei buruzko iritzia emateko, agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 11

Jokin Bildarratz Sorron
HEZKUNTZA SAILBURUA

